

EUSKAL KULTUR ASTEBURUA

Oionen

OSTIRALA 23

IKASLEEN TOKAPETA

10:30 Kalejira erraldoi eta buruhandiekin

Jarraian, pregoia plazan

11:30 Tailerrak eskolan eta igerilekuan

14:30 Dj Kaktus

20:00 Dj Kataña

IGANDEA 25

11:00 Arabako
Errioxako

Eskolarteko bertso-
topaketa

13:00 Herri-lasterketa

12:00 Izen-ematea

12:45 Berotze-ariketak

13:30 Sari-banatzea

15:00 Bertso-bazkaria

Helduen menua: 15€ / Umeena: 10€

Izena eman 21a baino lehen, Ikastolan,
Eskolan, Euskaltegian edo Adonixen



TTIKI TAKA Errioxako euskaldunon elkarte

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT HERRI LASTERKETA OIONEN!

Euskararen aldeko Kultur Asteburua aprobetxatuta, herri-lasterketa egingo da, Oionen, maiatzaren 25ean.

Euskaraldiaren azken egun honetan, euskaraz bizitzeko nahia, harrotasunez eta elkar hartuta adierazteko beste aukera bat izango da.

Aprovechando el Fin de Semana Cultural a favor del euskera en Oyón, se celebrará una carrera popular el 25 de mayo.

En este último día de Euskaraldia, tendremos oportunidad para expresar con orgullo y de manera conjunta el deseo de vivir en euskera.

Noiz: maiatzaren 25ean, 13:00ean herriko plazatik irteera. Amaieran, zozketa mundiala.

Cuando: 25 de mayo, a las 13:00 h, desde la plaza.

Al finalizar gran sorteo entre los/as participantes.

Izen ematea: aurretik edo egunean bertan plazan, 12:00etan.

Inscripción: anteriormente o en la misma plaza el mismo día, a las 12:00 horas.

✓ Umeak, 16 urte arte **1€**
Niños hasta 16 años **1€**

✓ Nagusiak **3€**
Mayores de 16 años **3 €**

Non/ Donde: **San Bizente Ikastola, CEIP Ramiro de Maeztu**
IKA euskaltegia, ADONIX taberna



EKA (Euskal Kultur Asteburua) Oionen maiatzaren 23an eta 25ean.

Ttiki-ttaka duela 33 urte sortutako euskaldunon elkarte da. Arabako Errioxako herriak eta Viana hartzen ditu bere baitan batez ere, zenbaitetan Mendabiara ere iritsi arren elkartearen ekintza eta ekimenak.

Gure inguruan euskara suspertzeko xedez, urtean behin aldizkaria, makina bat hausnarketa eta hamaika ekintza antolatu ohi ditu haur, gazte eta helduak euskaraz aritzeko. Ekintza horietako bat dugu EKA.

Elkartearen hasieratik bertatik inguruko herrietako ikastetxeetako haurrak euskaraz aritzeko elkartzeko eguna antolatu izan da, eta, horretarako, bilgune Arabako Errioxako herriak eta Viana izan ohi dira, txandaka. 2008tik aurrera, egun hori mantendu eta beste bat gehitu zaio, eta hortik datorkio izena: EKA (Euskal Kultur Asteburua).

Aurten, maiatzaren 23an eta 25ean izango dira ospakizunak, Oionen.

Maiatzaren 23a, ostirala.

Bastidako ikastola, Lapueblako Assa ikastola, Biasteriko Victor Tapia eskola, Lantziego eskola, Oiongo Ramiro de Maeztu eskola, Oiongo San Bizente ikastola eta Vianako Erentzun ikastola izango dira parte-hartzaileak. Ikastetxe horietako 725 hurrek hartuko dute parte, LH 1, 2, 3, 4, 5 eta 6ko ikasleek hain zuzen ere.

Goizez:

- 10:30ean, haur guztiak elkartu eskolan eta kalejira hasiko da buruhandi eta erraldoiekin.
- Ondoren, plazan pregoia, EKA egunerako sortutako *Txirrin* kanta abestu eta zunba saioa.
- 11:30ean, tailerrak: 1., 2. eta 3. mailakoek eskolan; eta 4., 5. eta 6. mailakoek igerilekuan.
- Jarraian, bazkaria.
- 14:30ean, *Dj Kaktus* plazan eta jolasak igerilekuan.

Arratsaldez:

- 20:00etatik 24:00etara, *Dj Kataña*.

Maiatzaren 25a, igandea.

- 11:00etan, Arabako Errioxako eskolarteko bertso-topaketa plazan.
- 13:00ean, Herri-lasterketa
 - 12:00etan, izen-ematea
 - 12:45ean, berotze-ariketak
 - 13:30ean, sari-banaketa
- 15:00etan, bazkaria eta bertso-saioa. (Izena eman, [maiatzaren 21a baino lehen](#), San Bizente ikastolan, Ramiro de Maeztu ikastetxean, Euskaltegian edo Adonix tabernan).